

Nekazari Eguna Lekunberrin: zaldi-aziendak eta bertako produktuak

*Zaldi-aziendak izanen dira **irailaren 1ean (igandea)** Lekunberrin egingo den azokaren protagonistak. Gainera, Mendialdeko Azoka Ibiltariarekin bat egingen du.*

Larraungo bailaran 2016an ospatu zen abeltzaintza-azoka tradizionalaren azken ekitaldia (1988, 1989, 1990, 1992, 1994, 1996 eta 2014an izan ziren aurrekoak), eta aurten berrindartuta etorriko da. Abeltzaintzak lurraldean duen garrantzia nabarmentzeko eguna izango da eta, bereziki, balioa eman nahi zaio zaldi-aziendek Mendialdeko ekonomia, kultura eta paisaia tradizionaletan izan duten zereginari.

Azoka aberasteko, gainera, Mendialdeko Azoka Ibiltariaren 5. ekitaldia egingo da, eta eskualdeko artisau eta nekazaritzako elikagaien eskaintza zabala jarriko da bisitarien eskura.

Ekimen honen bidez, **Lekunberriko eta Larraungo udalek** apustua egin nahi dute egun hau nekazaritzako eta abeltzaintzako azoken mapan kokatzeko eta indartzeko.

Lekunberriko Artzanegi kalean kokatuko dira zaldi eta behorren erakusketa eta salmenta, eta bertako produktuen merkatua, anfiteatroko parkearen inguruan.

Bertako arrazen erakusketa eta salmenta

2023ko abeltzaintza-eroldaren arabera, Mendialdean 300 ustiategi inguru daude zaldi-aziendarekin eta 3.000 abelburu baino gehiago erroldatuta. Burguete, Jaca Navarra, Pottoka, mendiko behor tradizionalak, mestizoak, etab. dira gure mendietan eta eskualdeko herri-lurretan bazkatzen duten arraza nagusiak. Zaldi-azienda, batez ere kontsumorako erabiltzen da, baina, neurri txikian bada ere, badira "tiorako" erabiltzen direnak ere herri-kirolen eta apustuen esparruan (zaldi-probak), eta nekazaritzako ustiategi batzuetan, nekazaritza-sistema tradizionaletan ere erabiltzen dira oraindik (goldean).

Datorren hilaren 1ean, Mendialdea eskualdeko ustategietatik 100 abelburu baino gehiago egonen dira ikusgai. Eta salmentarako berriz, 50 buru baino gehiago. Azken horiek zaldiko eta behoka gazteak dira (2022an eta 2023an jaiotakoak), gehienak Mendialdekoak. Oro har, "aurrerako moduko" azienda jarriko da salgai (erreprodukzioarako, lanerako...) Burgete arrazakoak hain zuzen.

Zaldikiz egindako pintxoak

Nola ez, zaldi-haragia ere protagonista izanen da baina, kasu honetan, pintxo gozoetan prestatuta. Pintxoak gure lurraldean egiten diren eta azokako postuetan salduko diren beste produktu askoren eskaintza gastronomikoari gehituko zaizkio: taloak, gazta, ezia, sagardoa, etab.

Pintxoez gain, txosna ere izango da, eta Mendialdeko Azoka Ibiltarian ekoizleek eskainiko dituzte beste produktu askoren eskaintza gastronomikoari gehituko zaizkio: taloak, gazta, ezia, sagardoa, zukuak, garagardoa, txokolatea...

Aralar Musika Eskolak azoka alaituko du kaleko musikarekin, eta, gainera, azokako esparrua nekazaritzako eta abeltzaintzako antzinako tresnekin "apainduta" egonen da, nekazaritzak eta abeltzaintzak Mendialdean zer-nolako tradizio sendoa izan duen gogoratzeko.

Ikuskizun berezia: ikatz txondorra

Ondare Elkartearen eta Azken Muga Elkartearen eskutik, garai bateko ikazkinek ikatza nola egiten zuten ikusteko eta ikasteko aukera paregabea izanen da Nekazari Egunean. Aurreko egunetan, txondorra eraikitze lanak egiten dituzte auzolanean, eta abuztuaren 31n piztuko dute, Nekazari Egunaren bezperan, eta 10 egun inguru egingo ditu piztuta. Prozesua bukatzen denean, ikatza aterako da eta herrian egiten diren ekitaldietan erabiliko da ikatz hori.

Proiektu honen bidez, garai bateko ikazkinen lana berreskuratzeko eta ezagutarazteko asmoa dute Ondare Elkartek eta Azken Muga Elkartek.

Jarraitzeko bokazioa

Larraungo eta Lekunberriko udalak dira zaldi-azokaren ekimen honen sustatzaileak, eta elkarlanean dihardute ekitaldi honek jarraipena izan dezan eta, pixkanaka, Nafarroako abeltzaintza-azoken artean koka dadin.

Azoka eta erakusketa huts izatetik harago, Nekazari Egunak badu aldarrikapen izaera ere. Funtsezkoa da zaldi-azienda gure mendietan, gure herri-lurretan egotea. Izan ere, izan duen eta duen garrantzia ekonomikoaz gain, paisaia eraikitzen, mantentzen eta kontserbatzen laguntzen du.

Jarduera hauek, bai zaldi azoka, bai Mendialdeko Azoka Ibiltaria ere, eskualdeko udalek egiten dituzten ekintzen barruan kokatu behar dira. Arano, Araitz, Areso, Basaburua, Betelu, Goizueta, Imotz, Larraun, Leitza eta Lekunberri biltzen ditu Mendialdea eskualdeak, eta azken urteetan estrategia eta programa oso bat lantzen ari dira lehen sektorea indartu eta biziberritzeko, lankidetzaz desberdinen bidez (bereziki CEDERNA Garalur-rekin) eta 2022ko amaieran hasitako eskualde-garapeneko strategiaren bidez (Mendialdeko Aktibazio Sozioekonomikorako Plana).

Mendialdeko Azoka Ibiltaria: Lekunberri-ren txanda

Lekunberriko Udalak, ekitaldi hau aprobetxatuz, Mendialdeko Azoka Ibiltaria antolatu du. Egutegia horrela geratzen da hurrengo ferietarako:

- Irailak 8: Leitza + XVIII Talo Eguna
- Urriak 13: Areso + "Aresoko baserriak" erakusketa
- Azaroak 3: Jauntsarats (Basaburua) + Gaztain Eguna
- Abenduak 1: Betelu + herriko helduei omenaldia.

Guztira, 28 postu egonen dira Lekunberriko Artzanegi kalean. Nekazaritzako elikagaien 18 postu: gazta, eztia, taloa, hestebeteak, pateak, haragia, arrautzak, garagardo artesanala, etab. Eskaintza honi, eskualdeko artisauen 10 artisautza postu gehitu behar zaizkio: zura, zeramika, metala, ehungintza, etab.

Modu jasangarri eta arduratsuan egindako tokiko produkturik onenen eskaintza izanen dugu Lekunberrin, zonaldeko lehengaien erabilera bereziki baloratzen duena. Azoka honen bidez, gainera, landa-eremuko ingurumenarekin, aisaiarekin, ekonomiarekin eta kulturarekin arduraz jokatzeko duen kontsumoa sustatu nahi da.

Azokaren jende-aurreko ordutegia 10:00etatik 15:00etara izanen da.

Gero eta jasangarriagoa, irisgarriagoa eta inklusiboagoa den ekitaldi baten alde

Beste ekintzetan bezala, **ZABORRIK EZ** mezua zabaldu nahi dugu. Datorren igandean, hilak 1, jendeari eskatu nahi diogu zakarrontziak erabil ditzatela eta azokako eremuan hondakinik ez dezatela utzi. Gero eta ekitaldi jasangarriagoak bultzatzea da helburua. Halaber, irisgarritasunari eta inklusibitateari dagokienez, honako hauek nabarmendu behar dira::

- **Garraio publikoa sustatzea:** egun horretan Lekunberrira iritsiko diren autobusen ordutegiak ("Conda" autobusak. www.alsa.es).
- **Merkatuaren esparrutik kanpo, aparkaleku egokituak** (seinalizatuta eta informazio emango duten boluntarioak egongo dira)
- **Mugikortasun Urriko Pertsonentzako Aparkalekua (MUP) azokako esparru berean** (Ibarberri eskolaren aurrean)
- **Komun egokituak:** Azokatik gertu (frontoian)
- **Programa eta komunizaio (prentsa oharra eta Sareak) irisgarriak**
- **"Zaborrik Ez":** zaborrontziak jarriko dira (koloreen arabera bereizitakoak), betiere espazio garbi eta osasungarria izateko helburuarekin ("Zaborrik Ez"), eta hondakinen gaikako bilketa eta birziklapena sustatuko da.
- **Edalontzi konpostagarriak**
- **Paper berziklatuan inprimatutako seinaleztapen-kartelak**
- **Atsedeen-guneak**

Esteka honetan, ekitaldian izango diren zerbitzuen, leku interesgarrien, programaren eta abarren zerrenda zehazten da mapa batean:

<https://labur.eus/isNs>

Informazio gehiago nahi izanez gero, egun berean Plazaolako geltoki zaharrean dagoen **Lekunberriko Turismo Bulegora** joan daitezke bisitariak..

Lekunberri eta **Larraungo udalen** lankidetzak eta inplikazioari esker da posible ekitaldi hau. Gainera, **Laboral Kutxaren** babesak du, eta **Plazaola Partzuergo Turistikoa**ren, **Cederna Garalurren**, **Echemarren**, **Albaitaritzaren** eta **Nekazari S.L.**-ren, **Lakitarren**, **Maitxeneren** eta **Ondare Kultur Elkarteen** laguntza.

Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen du

Lekunberri, 2024ko abuztuaren 20a